

GENERAZINEMA 2023 EKOIZPENA

LAGUNTZA MOTAK

■ A) Modalitatea: film luzeak ekoizteko laguntzak.

- A.1. Film luzeen produkzioarako laguntza orokorrak. 500.000 eurotik gorako guztizko aurrekontua duten proiektuetarako.
- A.2. Aurrekontu txikiko film luzeen produkzioarako laguntzak. 500.000 euro edo gutxiagoko aurrekontua duten proiektuetarako.

■ B) Modalitatea: film laburrak ekoizteko laguntzak.

- B.1. Film laburrak ekoizteko laguntzak, bai fikziozkoak eta bai sorkuntzako dokumentalak.
- B.2. Animaziozko film laburrak ekoizteko laguntzak.

■ C) Modalitatea: serie-pilotuak ekoizteko laguntzak.

Serie-kapitulu bat egitea bultzatuko da, proiektu seriatu baterako pilotu gisa balio dezan. Horretarako, honela kontsideratuko da:

- *Animazioko serie-pilotua*: animazioko ikus-entzunezko lana, serie baten ezaugarriak eta estiloa dituen eta ekoizleari hura finantzatzeko eta sustatzeko aukera ematen diona, gutxienez minutu batekoa.
- *Telebistako serie-pilotua*: telebistako ikus-entzunezko lana, serie baten ezaugarriak eta estiloa dituen eta ekoizleari hura finantzatzeko eta sustatzeko aukera ematen diona, gutxienez 30 minutukoa.

1. NOR IZAN DAITEKE LAGUNTZAREN ONURADUN?

- Enpresa ekoizle independenteak, IEEak barne (Interes ekonomikoko elkarteak), Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4 n) artikuluan jasotako definizioaren arabera.
- Eskatzailea interes ekonomikoko elkarte bat bada, kaudimen ekonomikoaren eta ibilbidearen balorazioa, eskabide-orrian zehazten den izaera independenteko ekoiztetxeari egiten zaio (adierazitako interes ekonomikoko elkarteko partaide dena).
- Eskabidea egiteko unean ekoiztetxeak Espainian eduki beharko du legezko egoitza edo establezimendua, eta ekoiztetxe moduan inskribatuta egon beharko du ICAAren Zinemagintzako eta Ikus-entzunezko Enpresen Erregistroan.
- Orobat, bete beharko ditu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak.

2. ZER DA EKOIZPEN-ENPRESA INDEPENDENTEA?

- Ikus-entzunezko komunikazio/hedapeneko zerbitzu-emaile baten edo telebista-kanal pribatu baten titularraren eraginaren mendeko ez izatea, ezta, bestalde, bertan eragin menderatzaile bat izatea edo, nolabait, dagozkion administrazio-edo kudeaketa-organoen erabakietan parte hartzea.
- Nolanahi ere, eraginaren mendeko dela ulertuko da Zinemaren abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 4 n) artikuluan adierazitako edozein inguruabar gertatzen denean.

3. ZER DA INTERES EKONOMIKOKO ELKARTEA IZATEA (IEE)?

- Interes Ekonomikoko Elkartea (IEE): Berezko nortasun juridikoa duen merkataritza-sozietatea, jarduera ekonomikoren bat garatzeko sortua, bazkideek garatzen dutenaren lagungarri, eta bazkideen jarduera errazteko edo emaitzak hobetzeko, bere buruarentzat irabazi-asmorik izan gabe. Interes Ekonomikoko Elkarteei buruzko apirilaren 29ko 12/1991 Legeak arautzen du.

4. ZER DA ENPRESA-ELKARTEA?

- Proiektu batean gastua egiten duten koproduktoreen arteko akordioa, horien artean ekoizle kudeatzailea izendatzeko – proiektu horretarako laguntza-eskaeraren kudeaketa zentralizatzen duena – eta, aldi berean, bakoitzaren gastu-konpromisoa finkatzeko, filmaren aurrekontuari dagokionez.
- Ezinbestekoa da diruz lagundu daitekeen jarduera onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten hainbat pertsona juridikok batera egitea.

5. ZENBAT PROIEKTU AURKEZ DAITEZKE DEIALDIRA?

- Gehienez ere lau proiektu.
- Proiektu bakoitzeko laguntza-eskaera bat aurkeztuko da.
- Proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, puntuaziorik altuena lortzen duten biek soilik jasoko dute dirulaguntza.

6. PROIEKTU BATEK BETE BEHAR DITUEN GUTXIENKO BALDINTZAK

- A) Modalitatea: Hirurogei minutu edo gehiago iraun behar du.
- B) Modalitatea: Hirurogei minutu baino gutxiago iraun behar du.

C) Modalitatea: Gutxienez minutu bateko iraupena izatea, animazio-serierako.
Gutxienez 30 minutuko iraupena izatea, telebistako serierako.

- Kalifikazio-eskaera aurkeztu ez izana.
- 500.000 eurotik gorako aurrekontua izatea (A.1 modalitatea), edo 500.000 eurokoa edo hortik beherakoa (A.2 modalitatea).
- Nazioarteko koprodukzioetan, koprodukzio-proiektuaren eskaera aurkeztu beharko da Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Zuzendaritza Nagusian, bai eta koprodukzio-kontratuaren azken bertsioaren kopia bat ere, koproduttore guztiek sinatua, non espresuki jasoko baitira ekoizle bakoitzak proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak eta obraren titulartasuna.
- Espainia mailako koprodukzioetan, pertsona edo erakunde eskatzaileak Espainiako ekoizpen osoaren % 20ko partaidetza izan beharko du, gutxienez. Kasu horretan, ulertuko da produkzio-etxe eskatzailearen aurrekontuaren zenbatekoa dela koprodukzioan duen partaidetza.
- Koprodukzio-kontratuaren azken bertsioaren kopia aurkeztu beharko da, koproduttore guztiek sinatua, non espresuki jasoko baitira ekoizle bakoitzak obra gauzatzeko hartutako konpromisoak eta obraren titulartasuna.
- Gainera, eskatzailea laguntzaren onuraduna bada, laguntza onartzeko unean eskatuko da ekoizle guztiek sinatutako koprodukzio-kontratuaren azken bertsioaren kopia konpultsatua fede-emaila publikoaren aurrean izatea.
- Koprodukzio batean, zeinetan ondoko puntuan ezarritako baldintzak betetzen dituzten produkzio enpresa bat baino gehiago dauden, laguntza hauen onuradun izateko, gastua exekutatu beharko dute, eta exekutatzen duten gastuaren ehunekoaren arabera jasoko dute laguntza. Horretarako, ekoizpen-enpresen talde bat eratu beharko dute, elkartearen ordezkariaren edo ekoizle-kudeatzailearen bidez jardunen duena.
- Aurkeztutako proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 1. Ekoizpen etxeen kargura onartutako aurrekontuaren %40, gutxienez, Nafarroako lurraldean egin beharreko gastuekin bat etortzea, 69/2021 Foru Aginduaren 2. artikularekin bat.
 2. Ekoizpen-etxeak Nafarroan izatea zerga-egoitza, proiektuaren ekoizpen-prozesu osoan, harik eta ICAAk edo une horretan dagokion administrazio-erakundeak proiektua kalifikatu arte.
- **Salbuespenez**, Nafarroako panorama artistiko, kultural edo ekonomikoan interes bereziko eragina duten proiektuak onartzen ahalko ditu balorazio batzordeak, edo interes bereziko lotura dutenak Nafarroako errealitate kultural, artistiko eta sozialarekin, baldin eta aurreko puntuan adierazitako baldintzetako bat bederen betetzen badute. Hori baloratzeko, idazki arrazoitua aurkeztu beharko da, klausula hau aplikatzeko zer inguruabar dauden azaltzen duena.

7. ZER FORMATUTAN ETA NOLA AURKEZTU BEHAR DA DOKUMENTAZIOA?

- Eskabideak modu telematikoan aurkeztuko dira nahitaez, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako [Erregistro Orokor Elektronikoaren](http://www.nafarroa.eus) bidez (www.nafarroa.eus). Identifikatzeko, ziurtagiri digitala edo Clave sistema eduki beharko da.
- Pertsona fisikoaren kasuan, ahal dela, eskabideak modu telematikoan aurkeztuko dira, edo, hala ez bada, aurrez aurre Iruñeko Navarrería kaleko 39an dagoen Erregistro Bulegoan, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako beste bideetako edozein erabiliz. Aurrez aurre aurkeztuz gero, eskabidearekin batera dokumentazioa aurkeztu beharko da USB memoria batean, tramitazioa eta balorazioa errazte aldera.
- Dokumentu guztiak bereizita eta behar bezala identifikatuta aurkeztu beharko dira.
- Eskabide eredua eta aurkeztu beharreko gainontzeko agiriak deialdi honetako eranskinetako [eredu eta formularioen](#) araberrakoa izanen dira, eta tramiteen katalogoan egonen dira eskuragarri.

8. ZER JASOTZEN DU "AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN GUZTIZKO AURREKONTUAK"?

- Proiektuaren zenbateko osoari egiten dio erreferentzia; hau da, proiektua egiteko beharrezkoak diren gastu guztiak sartzen dira, nahiz eta diruz lagundu daitekeen aldiari sartuta ez egon.
- Nazioarteko koprodukzioen kasuan, Espainiako koproduktoreen aurrekontua soilik hartuko da kontuan.

9. ZER JASOTZEN DU "DIRUZ LAGUN DAITEKEEN ALDIKO PROIEKTUKO AURREKONTUAK"?

- Diruz lagundu daitekeen aldiari dagozkion aurrekontu osoko gastuak jasotzen ditu, deialdiaren 7. oinarriaren arabera, baina honako gastu hauetarako ezarritako mugak kontuan hartu gabe:
 - Produkzio exekutiboa
 - Gastu orokorrak
 - Finantza- eta negoziazio-interesen gastuak
 - Publizitate-gastuak

10. ZER DA "ONARTUTAKO AURREKONTUA"?

- Diruz lagundu daitekeen aldiko aurrekontuaren zatia egiten dio erreferentzia, diruz lagundu daitekeen gastu gisa onartzen baita, deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoa betetzen duelako, eta kontzeptu hauetarako ezarritako mugekin:

- Produkzio exekutiboa
- Gastu orokorrak
- Finantza- eta negozioazio-interesen gastuak
- Publizitate-gastuak

- I. eranskinak, ONARTUTAKO AURREKONTUARI dagokion erlaitzean, zenbatekoaren kalkulu automatikoa emanen du, aurreko atalean aipatutako mugak barne. Hala ere, Balorazio Batzordeak baloratuko du sartutako gastuak benetan beharrezkoak diren proiektua garatzeko.

11. NOLA ZEHAZTEN DA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA LAGUNTZA EMATEKO EBAZPENEAN?

- Eskatutako laguntzaren zenbatekoa onartutako aurrekontuaren % 50era mugatuko da, gainditu gabe,
 - A.1 Modalitaterako ⇒ 100.000 €
 - A.2 Modalitaterako ⇒ 60.000 €
 - B.1 Modalitaterako ⇒ 25.000 €
 - B.2 Modalitaterako ⇒ 40.000 €
 - C Modalitaterako ⇒ 75.000 €
- Zehaztu ondoren, ondokoa egingen da: zati organo kudeatzaileak onartutako aurrekontua, eta bider 100, ebazpenean emandako laguntzaren ehunekoa zehazteko.

12. PROIEKTUA BALORATZEKO, ZER DOKUMENTAZIO AURKEZ DAITEKE KONPROMETITUTAKO FINANTZAKETA EGIAZTATZEKO?

- Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua edo zinema-banaketakoa ematen duten enprekin sinatutako kontratuak.
- Emandako laguntzen ebazpenak.
- Koprodukzio-kontratuak.
- Banku-abalak edo elkarren bermerako sozietate baten abalak.
- Banku-kontuaren egungo saldoa adierazten duen banku-ziurtagiria.
- Banku-kredituak.
- Inbertitzaile pribatuen ekarpenaren ziurtagiria.
- Egindako eta ordaindutako gastuen zerrenda, eskabidearen egunera arte egindako faktura eta ordainagiriekin batera.

13. KOPRODUZITUTAKO PROIEKTUETAN, NOLA BANATZEN DA DIRULAGUNTZA?

- Enpresa-taldeak eratzeko eredu ofizialean aitortutako gastu gauzatuaren ehunekoa araberak esleituko da laguntza.

- Laguntza eskatzeko unean aitortzen den gauzatutako gastuaren ehunekoa azken justifikazioaren unean egiaztatuko da. Ehuneko hori aldatzen bada, dagokion laguntza itzultzen hasiko da osorik (baldin eta azken ehunekoa ez bada iristen eskatutako % 20ko gutxienekora), edo partzialki (eskaera egitean adierazitakoa baino gastu txikiagoa egiten bada).

14. ZER DIRA LOTUTAKO ENPRESAK?

- Lotutako enpresak dira uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2 artikuluan jasotako enpreen artean edozein erlazio dutenak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 26. artikuluan adierazitakoak.
- Laguntzaren xede den proiektuan gastua egiten duten enpresa lotetsien aitortpena egin beharko da, Nafarroako Gobernuaren webgunean horretarako dagoen formulario ofiziala erabiliz.

15. ZER EGIN PROIEKTUAREN GARAPENEAN ALDAKETAK GERTATZEN BADIRA?

- Proiektu Estrategiko Ikus-entzunezkoen eta Digitalen Atalari idatziz jakinarazi behar dira proiektuaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera aipagarri, gertatzen den unean berean, baldin eta proiektua aldatzea ekartzen badu. Horretarako, inprimaki espezifiko bat emanen da.
- Nafarroan egindako gastuari buruzko baldintza aldatzeak laguntza emateko ebazpena aldatzea eta emandako laguntza egokitzea ekarriko du, zenbatekoa honako honen arabera murriztuz:

PORTZENTAJEA, ESKABIDEAN ADIERAZITAKOA BAINO TXIKIAGOA	EMANDAKO LAGUNTZA GUTXITZEA
11-20 puntu gutxiago	%5
21-30 puntu gutxiago	%10
31-40 puntu gutxiago	%15
41-50 puntu gutxiago	%20
51-60 puntu gutxiago	%25

16. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

- Emandako laguntzaren zenbateko osoa jasotzeko onartutako aurrekontuaren guztizkoa justifikatu behar da.
- Benetan egindako gastutzat joko da dirulaguntzari buruzko araudian ezartzen den justifikazio epea bukatu baino lehen ordaindu dena.

17. ZEIN FORMATUTAN ETA NOLA AURKEZTU JUSTIFIKAZIOAREN DOKUMENTAZIOA?

A) eta C) Modalitateak

- Justifikaziorako 18.4.2 oinarrian ezarritakoaren arabera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari edo une horretan dagokion administrazio organoari filmaketa bukatu delako jakinarazpena.
- Naziotasun-ziurtagiria, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak edo une horretan eskumena duen administrazioak emana.
- X. eranskina, Excel formatuan, izapideen katalogoan eskuragarri dagoen [ereduaren](#) arabera. Bertan, azken kostuaren, jasotako laguntzen (kenkari fiskalak barne) eta finantzaketa-iturrien deklarazioa jasotzen da. Horrez gain, «Datu espezifikoak».

Enpresa elkarte batekin batera ekoitziz gero, elkarte osatzen duten ekoizle guzti-guztien informazioarekin bete beharko da eranskin hau.

- Diru-sarreraren frogagiriak.
- Auditoria-txostena
- Ebaluazio-txostena.
- Generoari buruzko memoria.
- Proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostena, gauzatu bada.
- Argitaratzen diren inprimakien eta publizitateko elementuen 2 ale.
- Ikus-entzunezko lanaren behin betiko bertsioaren kopia berria eta baldintza ezin hobeetan.
- Vianako Printze Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak filma erabiltzeko eta banatzeko emandako baimena, PDF formatuan, izapideen katalogoan eskuragarri dagoen [ereduaren](#) arabera.
- Erakusketa komertziala bermatzen duen akordio sinatua.

B) Modalitatea,

- 21.4.2 oinarrian Justifikaziorako ezarritakoaren arabera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuari edo une horretan dagokion administrazio organoari filmaketa bukatu delako jakinarazpena.
- Naziotasun-ziurtagiria, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak edo une horretan eskumena duen administrazioak emana.
- XI. eranskina, Excel formatuan, izapideen katalogoan eskuragarri dagoen [ereduaren](#) arabera, «Fakturen zerrenda», «Amortizazio-gastuari lotutako fakturen zerrenda», «Nominen zerrenda», «Finantzaketa-iturriak» eta «Datu espezifikoak» erlaintzak beteta.

Enpresa elkarte batekin batera ekoitziz gero, elkarte osatzen duten ekoizle guzti-guztien informazioarekin bete beharko da eranskin hau.

- Egindako gastu guztien fakturak eta egiaztagiriak.
- Diru-sarreraren frogagiriak.
- Ebaluazio-txostena.
- Generoari buruzko memoria.

- Proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostena, gauzatu bada.
- Argitaratzen diren inprimakien eta publizitateko elementuen 2 ale.
- Ikus-entzunezko lanaren behin betiko bertsioaren kopia berria eta baldintza ezin hobeetan.
- Vianako Printze Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak filma erabiltzeko eta banatzeko emandako baimena, PDF formatuan, izapideen katalogoan eskuragarri dagoen [ereduaren](#) arabera.
- Erakusketa komertziala bermatzen duen akordio sinatua.

18. NOLA APLIKATZEN DA LAGUNTZAREN EHUNEKOA AZKEN LIKIDAZIOAN?

- Dirulaguntzaren azken likidazioa egiteko, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako ehunekoa aplikatuko zaie egindako gastu guztiei.
- Gastu horiek onartutako aurrekontua baino txikiagoak badira, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako ehunekoa aplikatuko da.
- Gastu horiek onartutako aurrekontua gainditzen badute, laguntzaren zenbatekoa dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako gehienekoa izanen da.

Zeinahi beste zalantza kontsultatzeko, erabil ezazu helbide elektroniko hau. cine@navarra.es